

Urbs, Inperioko hiriburua


Erroma, Inperioko hiriburua (*iturria: wikipedia*).

Latinez, *urbs* hiria da (grezieraz *polis* den bezala). Baina, hitz larriz idatzia, Urbs, Erroma zen, Inperioko hiri handiena: Hadrianoren garaian (II. mendea) milioi bat bizilagun izatera iritsi zen. Ordurako, Inperioko hiriburu politikoa eta ekonomikoa izanik, enperadoreek hiria edertua zuten. Foro inperialak eraiki arazi zituzten, akueduktuak, tenpluak, monumentuak...

Hala ere, Erromatar inperioko eraikin nabarmenak aisialdirako eraikitakoak ziren, alde batetik ikuskizunei zuzendutakoak, Koliseoa eta Zirko Handia adibidez, eta bestetik ongizatea bultzatzeko egindakoak, termak edo bainu-etxeak bezala (famatuenak Neron, Trajano, Karakala, Diokleziano eta Konstantinorenak ziren). Bi eraikuntza mota hauetarako sarrera urririk zen, izan ere biztanleak pozik atxikitzeke pentsatuak ziren.

Erromako hirigunea II. mendean. (maketa).

Saiatu zaitez elementu bakoitza mekatn identifikatzen:



- 1.-Tiber ibaia.
- 2.-Jupiterren tenplua
- 3.-Errepublika garaiko Foro zaharra (III. Mendean K.a.)
- 4.-Foro inperialak.
- 5.-Venusen eta Erromaren tenplua.
- 6.-Trajanoren termak.
- 7.-Koliseoa.
- 8.-Akueduktu edo ubidea (I. mendea)
- 9.-Palatinoko jauregi inperialak.
- 10.-Zirku handia.

